**BARAÑAINEN JARDUERA SOZIOKULTURALAK ANTOLATZEKO 2016ko DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA**

Barañaingo Udalak, Kultura Arloaren bidez, ondoko deialdia ezarri du, jarduera soziokulturalen antolaketa laguntzearren. Deialdiak **15.000 €,** gehienez, eskaintzen ditu. Deialdiak ondoko oinarriei jarraitzen die:

## 1.- XEDEA

Barañaingo biztanleentzat antolatzen diren jarduera artistiko eta musikalak laguntzea. Herriko talde eta elkarteei parte hartzeko bidea erraztea jarduera soziokulturalak antolatzeko eta urteurrenak ospatzeko. Deialdi honen baitan programen, proiektuen eta jardueren antolaketa lagunduko da; musika, antzerkia, zinea, dantza, argazkigintza, lirika, arte plastikoak, justizia sozialaren baloreak, eta herriko adierazpen soziokultural propioak sustatzen dituztenak., ez, ordea, parte-hartze hutsa, Barañaingo Udalak berezko deialdi ezberdin bat duelako jarduera soziokulturaletan parte-hartzea laguntzeko. Deialditik kanpo geratzen dira irakaskuntzaren esparruko elkarteek antolatzen dituzten trebakuntza-jarduerak ere; diru-laguntzen deialdi bereizia baitute horiek ere. Halaber, ez da onartuko jarduera zehatz gisa ekimen gastronomiko bat duten ekintzek sortutako gasturik.

Jarduera guztiak 2016ko abenduaren 31 baino lehenago egin behar dira Barañaingo udal-barrutian.

Jarduerek ezin dute Barañaingo Udalaren beste arlo edo programetako beste diru-laguntzarik jaso. Udalaren zerbitzu ezberdinek eskainitako jardueren ezaugarri beretsuak edo zerikusia duten proposamenek, ez dute diru-laguntzarik jasoko.

## 2.- BALDINTZAK

Deialdian parte hartzen ahalko dute honako pertsonek eta entitateek:

a) Irabazi asmorik ez duten erakunde eta elkarteek, Barañainen helbidea dutenek eta Udalaren interesekoak diren zerbitzuak eman edo jarduerak egiten dituztenek. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, elkarteek segidako baldintzak bete beharko dituzte (eta baldintza horiek mantendu diru-laguntza ematen den ekitaldi ekonomiko guztian):

- Elkartearen estatutuetan ezarritakoari jarraiki garatzea jarduerak, esparru soziokulturalean.
- Pertsona juridikoa izatea, legalki eratua eta behar bezala izena emanda egotea Nafarroako Gobernuko Elkarteen Erregistroan eta, kasu bada, Barañaingo Elkarteen Udal-erregistroan.

b) Barañainen helbidea duten pertsona fisikoak, udalaren interesekoak diren zerbitzuak eman edo jarduerak egiten dituztenak.

Horretaz gain, aurretik aipatu diren pertsona fisiko eta entitateek ondoko baldintzak bete behar dituzte:

- Betebehar fiskalak eta Gizarte-segurantzakoak egunean edukitzea, eta hori guztia egiaztatzea dagozkion sinestamenduekin (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantza). Barañaingo Udalarekiko betebehar fiskalei dagokionez ofizioz egiaztatuko da hori guztia, behar diren zuzemenen bidez agerrarazita. Era berean, ofizioz egiaztatuko da ez duela zenbatekorik ordaintzeke Udalaren Diruzaintzan. Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak dagozkion zuzemenen bidez egiaztatuko dira; dena den, ez daudenean derrigortuta betebehar horiei dagozkien egiaztagiriak aurkeztera adierazpen arduratsuaren bitartez egiaztatuko da betebehar hura betetzen dutela, II. Eranskinak duen edukiaren gisan.

- Aurkeztuta edukitzea aurreko urteetan jasotako diru-laguntzei dagozkien ordainagiri guztiak.

- Barañaingo Udalarekin ez edukitzea sinatuta elkarlanerako hitzarmenik, zerbitzu kontratazioriko edo beste era bateko kontratu edo konpromisorik egitasmoarentzat, zeinetarako eskatu baita finantzazioa. Era berean, diru-laguntzarik ez jasotzea Udalaren beste arloetatik jarduera bererako.

## 3.- ESKABIDEEN AURKEZPENA

Eskabideak Barañaingo Herritarrak Hartzeko Bulegoan aurkeztuko dira –Kultura Arlora zuzendurik–, eta **epea 2016ko apirilaren 22ko 14:00etan bukatuko da.**

Egitasmo bakoitzarentzat banan-banako eskabide-orriarekin aurkeztu behar dira eskaerak, entitatearen lehendakariak sinatuta –edo ordezkaritza duenak- (I. Eranskina eredu hartuta):

- Elkartearen, entitatearen edo pertsona fisikoaren lege izena, eta IFZ.
- Bankuko datuak: banku-entitatea, kalea eta herria, sukurtsala eta banku-kontuaren zenbakia.
- Eskabidea aurkezten duen pertsonaren datuak: izen-abizenak, NAN, kargua, helbidea eta harremanetarako bidea (telefonoa, faxa, posta elektronikoa).
- Eskabidea aurkezten duen pertsonaren adierazpena sinatuta, zeinetan adierazten baita dosierrean jasotako informazioa zuzena dela.
- Jardueren programaren izenburua, proposaturiko jarduera kopurua eta beste hainbat datu, eskaerak bideratzeko I. Eranskina orrian agertzen denaren arabera.
- Jarduera edo programari dagokion aurrekontua, kontzeptuka bereizita beti.
- Jarduera edo programari dagozkion finantzazio eta hedapen planak.
- Elkarteak dituen laguntza edo diru-laguntzen eta diru-sarreren berri ematen duen adierazpen zehatza, eta, horrelakorik ezean, inongo laguntzarik jasotzen ez duela adierazten duen aitorpena. Halaber, lehenagotik laguntzarik eskatu baldin bada eta deialdi honetako eskabidea aurkeztutako momentuan oraindik erabaki gabe baldin bada, hori ere adierazi beharko du.
- Betebehar fiskalak eta Gizarte-segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantza), baldin eta derrigortuta badago aipatu betebehar horiei dagozkien adierazpenak edo agiriak aurkeztera.

Agiriak originalak edo konpultsatutako fotokopiak izanen dira. Eskatzaileei 10 eguneko epea emanen zaie, gehienez ere, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aitzina, aurkeztu gabeko agiriak aurkezteko edo egin diren akatsak zuzentzeko. Hala egiten ez bada, epe hori igaro ondoren eskaerari uko egin zaiola ulertuko da.

## 4.- BALORAZIOA

Kultura Arloko Informazio Batzordeak espedientea aztertuko du eta Tokiko Gobernu Batzordeari proposatuko dio diru-laguntza onartzea eta hura ordain dezan, aurretik Kultura Arloko zerbitzu teknikoek emandako txostenarekin batera eta Udalaren Kontu-hartzailetzak fiskalizazioa egin eta gero.

Aurkeztutako proiektuen, jardueren eta programen balorazio teknikoak ondoko atalak izanen ditu kontuan:

**EGITASMOA OSATZEN DUEN JARDUERA KOPURUA, guztira, 40 puntu:**

4.1.- Proposatutako jarduera kopurua: Egitasmoan aurkeztu diren jarduera artistiko –zeinak bultzatzen baitu musika, lirika, antzerkia, zinea, dantza, argazkigintza, arte plastikoak, justizia sozialaren baloreak edo herriko adierazpen soziokultural propioa- bakoitzarengatik 5 puntu. Gehienez ere, 40 puntu.

**EGITASMOAREN KALITATEA, guztira, 20 puntu:**

4.2.- 10 puntu, baldin eta egitasmoak biltzen dituen jardueretan kultura arloko profesionalek (idazleak, musikariak, antzezleak, argazkilariak, etab.) parte hartzen badute.

4.3.-10 puntu, baldin eta egitasmoa gauzatzeko herrikoekin partaidetza prozesuak bultzatzen badira.

**PROIEKTU GAZTEA, guztira 10 puntu:**

4.4.-10 puntu herriko gazteen parte hartzearen helburu edo jarduerak egiten diren.

**EGITASMO ERABERRITUA (GAUZATZE MAILAREN % 50ean) edo ERABAT BERRIA UDALERRIAN, guztira, 10 puntu:**

4.5.- Eraberritzea eta berria sortzea: % 50ean eraberritua dagoen egitasmoagatik 5 puntu (%50 baino txikiagoa baldin bada ez da punturik izanen), eta udalerrian erabat berria den egitasmoagatik 10 puntu.

**PARTAIDETZA EGITASMOAN, guztira, 10 puntu:**

4.6.- Jarduerak herritarrengan izandako eragina (10 puntu). Eragin txikia izan badu (gehienez ere 20 pertsona arte bilduta), 3 puntu; erdi mailako eragina izanik (gehienez ere 100 pertsona arte), 7 puntu; eta, 10 puntu parte-hartze jendetsua eduki badu jarduerak.

**JARDUNBIDE EGOKIAK, guztira, 10 puntu:**

4.7.- Elkarte edo entitate antolatzaileak duen parekotasuna haren antolamendu egituran (5 puntu). Parekideak diren taldeei 3 puntu emango zaizkie, eta, martxan jarri duten egiaztatutako jarduera onuragarri bakoitzarengatik puntu 1; eta, gehienez ere, 2 puntu.

4.8.- Ingurumenarekin jardunbide arduratsua eta iraunkorra (5 puntu). Egiaztatutako jardunbide bakoitzarengatik puntu 1; eta, gehienez ere, 5 puntu.

## 5.- EMAKIDA

Muga ezarri da, 3.000 eurokoa, Udalak egitasmo bakoitzari, gehienez, eman dieziokeen diru-laguntzarako.

Elkarte bakoitzak –gehienez- aurkeztu dezakeen egitasmo kopuruari dagokionez, muga ezarri da: elkarte bakoitzeko, gehienez, hiru egitasmo aurkeztu daitezke.

Entitate eskatzaileei ematen ahal zaizkien laguntzen portzentajeak deialdi honetako 4. artikuluak dioenari jarraiki (balorazio irizpideak eskaerentzat) aplikatuko dira, eta aurrekontuaren erabilgarritasun-egoera kontuan hartuta, betiere.

Emango den diru-laguntza ateratzeko segidako taula aplikatuko da:

| Lortutako puntuak | % gehienekoa, onartutako zenbatekoaren gainean | Gehieneko zenbatekoa |
|---|---|---|
| 70 baino gehiago 100 punturaino | % 90 | 3.000,00 € |
| 50 baino gehiago 70 punturaino | % 80 | 2.000,00 € |
| 30etik  50 punturaino | % 70 | 1.300,00 € |
| 30 puntu baino gutxiago | Kanpo geratuko dira | Kanpo geratuko dira |

Egitasmoen puntuekin lotuta dauden zenbatekoak gehienezko diru-laguntzak dira; baina, zenbateko horiek baino kopuru txikiagoa duten diru-laguntzak eman daitezke, egindako balorazioaren ondorioz eta aurrekontuaren erabilgarritasun-egoeragatik.

Goiko taularekin bat, lortutako puntuen arabera egingo da banaketa. Puntu gehien lortu dituen egitasmoarekin hasi eta eman diren gainontzeko diru-laguntzekin jarraituta, horiek eman ahala kontusaileko saldoa agortu egingo delarik.

Jasotako eskaerekin deialdi honetako diru-laguntzen zenbatekoa gainditzen bada, balorazioan puntu gutxien lortu dutenena bertan behera gera daiteke, edo proportzionalki banatzen ahalko da eskaeren artean diru-laguntzaren zenbatekoa, aurkeztu diren eskaeren arabera.

Halaber, Kultura arloak egiten dituen diru-laguntzetako deialdietatik soberazko zenbatekoa geratuko balitz, deialdi honetako diru-hornidura handitzeko erabiliko litzateke hura.

Diru-laguntza eman eta gero, onartutzat joko da interesatuak horren berri hartu eta 10 eguneko epean espresuki uko egiten ez badio. Eskatzaileak Batzordearen aurrean ager daitezen eskatzen ahalko da, Batzordeak eskatutako edozein argibide eman dezaten.

Emandako zenbatekoa bi epetan ordainduko da (organo eskudunak zehaztutako kasu berezietan izan ezik): % 80, emakida egin ondoren, berehala. Gainontzeko % 20, jarduera egin eta 6. oinarriak aipatzen duen derrigorrezko memoria aurkeztu eta gero.

## 6.- BETEBEHARRAK

Onuradunek nahitaez egin beharko dute proiektua onartutakoarekin bat, eta diru-laguntza jaso duen jarduera egin bitartean izandako edozein gertakariren berri eman beharko dute gertatu eta berehala.
Horretaz gain, jardueraren zabalkuntzan derrigorrez euskeraz eta erderaz aipatu beharko da Barañaingo Udaleko Kultura Arloaren laguntza jaso dutela; hartara, Udalaren eta Kultura Etxearen logotipoak jarri beharko dira. Logotipo horiek Kultura Etxean eskatu.

Jardueraren txostena, edukia eta zein modutan egin den, balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak) eta jarduera egin bitartean izandako fakturen egiaztagiriak edo horien fotokopia konpultsatuak eta hauen ordainketa agiriak **2017ko urtarrilaren 20ko 14:00ak** baino lehen aurkeztu beharko dira, indarrean dagoen legediari jarraiki eta III. Eranskina orria erabilita eredu, Barañaingo Udaletxeko Herritarrak Hartzeko Bulegoan. Indarreko legeriarekin bat aurkezten diren fakturek baino ez dute baliorik izanen, eta aldez aurretik aurrekontuan sartutakoak (ez dira onartuko jasoagiriak eta justifikatzeko zuzenak ez diren gainerako moduak).

Jarduera irabazizkoa bilakatzen bada, udalaren diru-laguntza itzuli beharko da; lortutako irabaziaren araberakoa izanen da bueltatu beharrekoa.

Onartutako aurrekontuaren ehuneko bat izanen da diru-laguntzaren zenbatekoa. Azkenean izandako benetako kostua hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, bi kostuen arteko tartearen %tan murriztuko du Batzordeak diru-laguntzaren zenbatekoa. Horregatik, aurrekontu ahalik eta zorrotzena aurkeztea aholkatzen dugu.

Diru-laguntzaren onuradunek, diru-sarrera jaso aurretik, Barañaingo Udalarekin dituzten zerga-betebeharrak egunean dauzkatela egiaztatu beharko dute.

Deialdi honetako baldintzaren bat beteko ez balitz edota memoria aipatutako epeetan aurkeztuko ez balitz, diru-laguntza bertan behera utzi eta emandako zenbatekoa itzularaztea erabaki lezake organo eskudunak.

## 7.- ARAUTEGI ERREGULATZAILEA

Honako Deialdi hau bertan jasota dauden baldintzekin kudeatuko da, eta, oinarri hauetan aurrez ikusi ez den orotan, aginduko du ondoko araudiak: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea; Barañaingo Udalaren diru-laguntza emateak arautzen dituen Ordenantza; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea; eta, arau osagarri gisa, Aurrekontuen Lege Orokorra, eta diru-laguntzei buruzko Estatuko Araudia.

## 8.- HELEGITEAK

Oinarri hauen eta horiek betearazteko egintzen aurka ondoko errekurtso hauetakoren bat paratzen ahalko da:

1.- Jakinarazi eta hurrengo hilabetea amaitu aurretik, eta nahiz gero, Birjarpeneko errekurtsoa, erabakia hartu duen udal-organoaren aurrean (30/1992 Legea, azaroaren 25ekoa, 4/1999 Legeak, urtarrilaren 13koak, aldatu zuena); birjarpenekoa aurkeztuz gero, ezin izango da ez gorako errekurtsoa ez administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri, birjarpenekoa ebatzi edo ustez ezetsi arte. Birjarpenekoaren ebazpenaren aurka ezin izango da beste birjarpeneko errekurtsoa aurkeztu.

2.- Jakinarazi eta hilabete bat igaro aurretik, eta nahiz gero, Gorako errekurtsoa Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aurrean (6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa). Gorakoa aurkeztuz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri gorakoa espresuki ebatzi edo ustez ezetsi arte.

3.- Jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hurrengo bi hilabeteak amaitu aurretik, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aipatu jurisdikzioaren organo eskudunaren aurrean (29/1998 Legea, uztailaren 13koa).

## ANEXO I / I. ERANSKINA

**CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA LA REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES SOCIOCULTURALES AÑO 2016**

**GIZARTE ETA KULTURA JARDUERAK EGITEKO 2016KO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA**

Casa de Cultura Kultur Etxea

FICHA PARA PRESENTACIÓN DE **SOLICITUDES**

**ESKAERAK** AURKEZTEKO FITXA-ORRIA

ASOCIACIÓN / ENTIDAD / ORGANISMO RESPONSABLE DE LA ACTIVIDAD — JARDUERAREN ARDURADUNA DEN ELKARTEA / ENTITATEA / ERAKUNDEA

Nombre legal completo — Izen legala osorik

..........................................................................................

..........................................................................................

NIF — IFZ

..........................................................................................

Datos bancarios — Banku-datuak

..........................................................................................

Entidad bancaria / Banketxea — Sucursal / Sukurtsala

..........................................................................................

..........................................................................................

Calle / Kalea — Nº / Zk.

..........................................................................................

Cuenta bancaria nº — Banku-kontuaren zk.

..........................................................................................

Nombre y apellidos — Izen-deiturak

..........................................................................................

con DNI — NAN

..........................................................................................

declaro que las informaciones contenidas en este dossier son exactas. — Datu horien jabe naizen honek aitortzen dut txosten honetan jasotako informazioa egia dela.

Cargo en el proyecto presentado — Aurkeztutako proiektuan dudan kargua

..........................................................................................

Dirección — Helbidea

..........................................................................................

Teléfonos / Telefonoak — Fax / Faxa

..........................................................................................

E-mail / e-posta

........................................................

Firma / Sinadura

Fecha/Data

| Título del proyecto de actividades: | Jardueren proiektuaren izenburua: |
|---|---|

.....................................................................................................
.....................................................................................................

## 1.- ASPECTOS GENERALES

## 1.- ALDERDI OROKORRAK

1.1.- Nº de actividades propuestas (tipo de actividad, fechas, horas y lugares):

1.1.- Proposatutako jarduera kopurua (jarduera mota, datak, orduak eta lekuak).

1.....................................................................................................
.....................................................................................................
2.....................................................................................................
.....................................................................................................
3.....................................................................................................
.................................. ....................................................................
4.....................................................................................................
.....................................................................................................
5.....................................................................................................
.....................................................................................................
6.....................................................................................................
.....................................................................................................
7.....................................................................................................
.....................................................................................................
8.....................................................................................................
.....................................................................................................
9.....................................................................................................
.....................................................................................................
10...................................................................................................
.....................................................................................................
11...................................................................................................
.....................................................................................................
12...................................................................................................
.....................................................................................................
13...................................................................................................
.....................................................................................................
14...................................................................................................
.....................................................................................................
.....................................................................................................
.....................................................................................................

1.2.- Señala si el programa cultural de actividades propuesto congrega como público:

1.2.- Adierazi ea proposatutako kultura jardueran parte hartzen duen jende kopurua.

| | | |
|---|---|---|
| Hasta 20 personas | ☐ | 20 lagun bitarte |
| Entre 20 y 100 personas | ☐ | 20 eta 100 bitarte |
| Público masivo | ☐ | Jende ugari |

1.3.- Número de componentes de la asociación (desglosado por sexos). Detalla si se han puesto en

1.3.- Elkartearen kide kopurua (sexuka bereizita). Zehaztu ea martxan jarri diren benetako sexu-

marcha acciones positivas por la igualdad real de sexos en la asociación. Indica qué y cuándo. Ej.: 1-Se ha impulsado la participación femenina en el grupo en la campaña de matriculación de septiembre, 2-Se ha realizado una formación para utilizar lenguaje no sexista en adelante, 3-Se han apoyado las campañas locales contra la violencia de género/agresiones sexuales el 25 de Noviembre etc.

berdintasunaren aldeko ekintzak elkartean. Zehaztu zer, noiz eta nola. Adib.: 1. Emakumezkoen parte-hartzea bultzatu da taldean iraileko matrikulazio kanpainan, 2. Prestakuntza egin da aurrerantzean hizkuntza ez sexista erabiltzeko, 3. Genero indarkeria / sexu-erasoen kontrako Azaroaren 25eko tokiko kanpainei laguntza ematea, etabar.

Nº HOMBRES / GIZON KOPURUA: ...........................................................................
Nº MUJERES / EMAKUME KOPURUA:......................................................................
TOTAL / OSOTARA: ..........................................................................................
1......................................................................................................................
2......................................................................................................................
3......................................................................................................................
4......................................................................................................................
5......................................................................................................................

1.4.- Señala si la actividad o programa cuenta con la puesta en marcha de prácticas responsables y sostenibles con el medio ambiente. Indica qué, cuándo y cómo. Ej.: 1-Se ha reducido el consumo de papel en los trámites, 2-Se ha utilizado papel reciclado para las partituras, 3-Se ha promocionado el consumo de alimentos ecológicos o de temporada en los eventos gastronómicos, 4-Se ha utilizado iluminación eficiente/de bajo consumo en los locales, 5-Se ha apoyado algún evento por el medioambiente etc.

1.4.- Adierazi ingurumenarekiko ohitura arduratsurik eta/edo garapen iraunkorrekorik jarri duen martxan jarduerak edo programak. Zehaztu zer, noiz eta nola. Adib.: 1. Paper kontsumoa gutxitu da izapideetan, 2. Paper birziklatua erabili da partiturentzat, 3. Elikagai ekologikoak edo garaian garaikoak kontsumitzea bultzatu da gastronomia ekitaldietan, 4. Argiztapen eraginkorra /kontsumo txikikoa erabili da lokaletan, 5. Ingurumenaren aldeko ekitaldiren bati laguntza eman zaio, etabar.

1....................................................................................................................
2......................................................................................................................
3......................................................................................................................
4......................................................................................................................
5......................................................................................................................

1.5.- Señala si la actividad o programa cuenta con objetivos y actividades dirigidas a impulsar la participación de jóvenes de la localidad Indica qué, cuándo y cómo.
1.........................................................................................................
...........................................................................................................
2.........................................................................................................
...........................................................................................................
...........................................................................................................

1.5.- Adierazi gazteria parte hartzearen alde helburuarekin jarri duen martxan jarduerak edo programak. Zehaztu zer, noiz eta nola.
1.........................................................................................................
...........................................................................................................
2.........................................................................................................
...........................................................................................................
...........................................................................................................

1.6.- Señala si para la realización del proyecto se impulsan procesos participativos con la población de la localidad (describir en qué fase del proyecto-diseño y/o ejecución- y qué estrategias se han utilizado).
1.........................................................................................................
...........................................................................................................
2.........................................................................................................
...........................................................................................................
...........................................................................................................

1.6.- Adierazi egitasmoa gauzatzeko herrikoekin partaidetza prozesuak bultzatzen diren (deskribatu proiektutako zer unetan- diseinuan eta/edo egitean- eta zer nolako estrategiak erabili diren).
1.........................................................................................................
...........................................................................................................
2.........................................................................................................
...........................................................................................................
...........................................................................................................

| CONCEPTOS / KONTZEPTUAK | GASTOS / GASTUAK | INGRESOS/DIRU-SARRERAK |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

*TOTALES / GUZTIRA* ________________ ________________

2.2.- Declaración de otras ayudas o subvenciones para el proyecto.

2.2.- Proiektuarentzat jaso diren gainontzeko diru-laguntzen adierazpena.

.......................................................................................................................
.......................................................................................................................
.......................................................................................................................
.......................................................................................................................
.......................................................................................................................
.................................. ....................................................................................
.......................................................................................................................

## 3.- PLAN DE DIFUSIÓN

Señale los recursos publicitarios que va a utilizar para su actividad cultural. Ej.: 1- 100 dípticos con el programa de conciertos, 2- Publicidad en "Vivir en Barañáin" y 3- Publicidad en las agendas culturales del Ayuntamiento.

## 3.- ZABALKUNDE PLANA

Jarduera kulturala aurrera eramateko erabiliko dituzuen baliabideak zehaztu. Adib.: 1. Kontzertuen programarekin 100 orribiko, 2. Publizitatea "Vivir en Barañáin" argitalpenean, eta 3. Publizitatea Udalaren kultura agendetan.

1...........................................................................................................
2...........................................................................................................
3...........................................................................................................
4...........................................................................................................
5...........................................................................................................

4.- TOTAL DE LA SUBVENCIÓN SOLICITADA (en EUROS).

4.- ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA GUZTIRA (EUROtan).

.............................................................................................................
.............................................................................................................
.............................................................................................................
.............................................................................................................
.............................................................................................................
................................ ......................................................................

**Gracias por su colaboración.**

**Esker anitz zure laguntzagatik.**

## ANEXO II / II. ERANSKINA

**DECLARACION RESPONSABLE**

***Atención:*** *Rellenar con letra mayúscula.*

**ADIERAZPEN ARDURATSUA**

***Erne!:*** *Letra larriz bete.*

**D./Doña.** **Jauna / Andrea:**

**DNI núm.:** **zenbakidun NAN**

**actuando en representación de la ASOCIACIÓN o ENTIDAD** **ondoko ELKARTE edo ENTITATEaren ordezkari gisa**

**(con NIF núm.** **zenbakidun IFZ)**

**MANIFIESTA (marcar lo que proceda):**

☐ Que la entidad que representa no está obligada a presentar declaraciones o documentos referidos a cumplimiento de obligaciones con Hacienda Foral y con la Seguridad Social.

☐ Que la entidad que representa se encuentra inscrita en el Registro de Asociaciones de Gobierno de Navarra, no habiendo sufrido modificación alguna la documentación presentada en dicho registro.

☐ Que la entidad que representa se encuentra inscrita en el Registro de Asociaciones del Ayuntamiento de Barañáin, no habiendo sufrido modificación alguna la documentación presentada en dicho registro.

Y para que así conste ante el Ayuntamiento de Barañáin, a los efectos de la solicitud de subvenciones en el ejercicio 2016 a organismos, instituciones o asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollan actividades en el área de la acción social, firma la presente,

**ADIERAZTEN DUT (markatu dagokizuna):**

☐ Ordezkatzen dudan entitatea ez dagoela behartuta Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagozkien aitorpen edo agiriak aurkeztera.

☐ Ordezkatzen dudan entitateak Nafarroako Gobernuko Elkarteen Erregistroan izena emanda duela, eta erregistro horretan aurkeztutako dokumentazioak ez duela aldaketarik izan.

☐ Ordezkatzen dudan entitateak Barañaingo Udaleko Elkarteen Erregistroan izena emanda duela, eta erregistro horretan aurkeztutako dokumentazioak ez duela aldaketarik izan.

Eta horrela jasota gera dadin Barañaingo Udalean, gizarte ekintzaren esparruan jarduerak antolatzen dituzten irabaz asmorik gabeko erakunde, instituzio edo elkarteen 2016ko ekitaldiko diru-laguntzetarako eskaeren ondorioetarako, sinatzen dut honako agiri hau,

En Barañáin a _______ de __________________de 2016.

Barañain, 2016ko __________________ ren _____ (a).

Firma de la persona declarante / Adierazpen egilearen sinadura

**ANEXO III** **III. ERANSKINA**

**Nombre de la entidad / Entitatearen izena:**

## FICHA DE EVALUACIÓN COLECTIVOS CULTURALES

## EBALUAZIO-FITXA KULTURA TALDEAK

**CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA ACTIVIDADES SOCIOCULTURALES 2016**

**JARDUERA SOZIOKULTURALAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA 2016**

Área de Cultura
Ayuntamiento de Barañáin

Kultura Arloa
Barañaingo Udala

### 1.- DATOS GENERALES DE LA ACTIVIDAD. / 1.- JARDUERARI BURUZKO DATU OROKORRAK.

* Tipo de actividad (teatro, música, taller, charla, exposición, concurso...). / * Jarduera (antzerkia, musika, tailerra, hitzaldia, erakusketa, lehiaketa...).

........................................................................................................

........................................................................................................

........................................................................................................

* Fecha, hora, y lugar. / * Eguna, ordua eta lekua.

........................................................................................................

........................................................................................................

........................................................................................................

* Grupo, compañía, ponente, artista, tema del concurso... / * Taldea, konpainia, hizlaria, artista, lehiaketaren gaia...

........................................................................................................

........................................................................................................

........................................................................................................

* Repertorio, obra, tema... / * Errepertorioa, obra, gaia...

........................................................................................................

........................................................................................................

........................................................................................................

* Número de componentes y sexo. / * Taldekide kopurua eta sexua.

........................................................................................................

........................................................................................................

........................................................................................................

* Suspensión de la actividad. Motivo. / * Jarduera bertan behera uztea. Arrazoia.

........................................................................................................

........................................................................................................

........................................................................................................

### 2.- DIFUSIÓN / 2.- ZABALKUNDEA

* Agenda cultural local. / * Barañaingo agenda kulturala.

........................................................................................................

* Publicación *Vivir en Barañáin.* / * *Vivir en Barañain* argitalpena.

........................................................................................................

* Carteles. / * Kartelak.

........................................................................................................

* Programas de mano. / * Esku-programak.

........................................................................................................

* Prensa escrita. / * Prentsa idatzia.

..............................................................................................................

* Radio, televisión. / * Irratia, telebista.

..............................................................................................................

* Otros (indicar). / * Besterik (zehaztu).

..............................................................................................................

(Adjuntar un ejemplar, original o copia) / Ale bat erantsi, jatorrizkoa edo fotokopia)

## 3.- ASISTENCIA (desagregados por sexos) / 3.- PARTE-HARTZAILEAK (sexuaren araberakoa)

3.1.- Relación del número de participantes. / 3.1.- Parte-hartzaile kopurua.

* 3ª edad: / * Adinekoak: ..............
* Adultos/as: / * Helduak: ..............
* Jóvenes: / * Gazteak: ..............
* Niños/as: / * Haurrak: ..............

NÚMERO TOTAL: / GUZTIRA: [ ]

3.2.- Procedencia de los asistentes en porcentaje. / 3.1.- Parte-hartzaileen jatorria, ehunekotan.

* Barañáin: / * Barañain: ..............
* Pamplona: / * Iruña: ..............
* Comarca de Pamplona excepto Pamplona:/* Iruñerria, Iruña izan ezik: ..............
* Navarra: / * Nafarroa: ..............
* Otras (indicar): / * Besterik (zehaztu): ..............

## 4.- VALORACIÓN / 4.- BALORAZIOA

Resuma en cinco líneas la valoración de la actividad y los motivos de la misma (positiva, negativa... y por qué).

Bost lerrotan laburtu ezazue jarduerari buruzko balorazioa, eta arrazoitu (balorazio ona, txarra... eta zergatik).

..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................

## 5.- OBSERVACIONES. INCIDENCIAS / 5.- OHARRAK. GERTAKARIAK

..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................
..............................................................................................................

| ***6.-DATOS ECONOMICOS DE LA ACTIVIDAD REALIZADA (*)*** | ***6.-EGINDAKO JARDUERAREN GAINEKO DATU EKONOMIKOAK(*)*** |
|---|---|

| CONCEPTOS / KONTZEPTUAK | GASTOS / GASTUAK | INGRESOS/DIRU-SARRERAK |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

*TOTALES / GUZTIRA* ________________ ___________________

**El/La solicitante declara bajo juramento que son ciertos los datos que hace constar en la presente justificación y en la documentación que adjunta.**

**Eskatzaileak zinpean aitortzen du egiaztagiri honetan eta erantsita dagoen dokumentazioan azaltzen diren datuak egiazkoak direla.**

En Barañáin, a ____ de_________________ de 20____.

Barañain, 20____ko _______________ ren ______ (a).

Firma del solicitante / Eskatzailearen sinadura

| |
|---|
| |

**** Adjuntar la justificación de los gastos relacionados en este documento.***

**** Erantsi ordainagiriak, zerrendatu diren gastuen gainekoak.***